



Coda Ahots Taldeak kantu gregorianoz bustiko du bihar Santa Maria Katedrala

- 'Isiltasuneko kantuak' abestuko du, programa guztiz egokia Aste Santurako
- 20:00etan hasiko da eta sarrera doakoa da, habearteko toki guztiak bete arte

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 25ean.- Santa Maria Katedralaren habearte nagusiak **Coda Ahots Taldea** hartuko du bihar, kantu gregorianoan eta lehenengo polifonietan espezializatuta dagoen Burgoseko taldea. 'Isiltasuneko kantuak' abestuko du, programa guztiz egokia Aste Santu aurreko egun hauetarako. 20:00etan hasiko da eta sarrera doakoa da, habearteko toki guztiak bete arte.

Askotariko eta kalitateko aukera kulturalak eskaintzeko nahiari helduz, Santa Maria Katedrala Fundazioak kantu gregoriano kontzertu bat antolatu du biharko, martxoak 26, astelehena. Coda Ahots Taldeak emango du, alegia, 2013. urtean koru musikaren zale batzuek Burgosen eratu zuten taldeak. Hainbat proiektu musikaletan parte hartu dute dagoeneko.

Antzinako musikan espezializatuta daude, zehazki, kantu gregorianoan eta lehenengo polifonietan, eta oso nahasita dago antzinako musika liturgikoaren kontserbazioan eta hedapenean. Ahots baxua duten pertsonen talde txikia da eta edozein garaiko kantua interesatzen zaie: lehenengo abestietatik hasita, gaur egungo musika modernora. Fidel González da zuzendaria.

Bere iritziz, "kantu gregorianoari buruzko informazioa ugaria da gaur egun, baina oraindik asko dago ezagutzeko eta ikasteko. Hala ere, gabezia guztiekin, inor ez da epel geratzen bere ozentasunean murgiltzean, izan ere, emozioak adierazteko inspirazio-iturri garrantzitsua da mendebaldeko musikan".

Santa Maria Katedralean emango duen kontzertuan 'Isiltasuneko kantuak' abestuko du, programa guztiz egokia Aste Santu aurreko liturgia-egun

hautarako. Emanaldia 20:00etan hasiko da habearte nagusian. Sarrera doakoa izango da, aretoa bete arte.